


Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta Amalurra zainduz



Bada jada urtaro mordo
agroekologiarekin dantzan gabiltzala.
Pausu txiki eta xumeak egiten,
akonpasatuak, amalurrak eskaintzen
digun doinuari jarraituta.

Pixkanaka nekazari zein herritarrek **naturaren musikarekin mugitzen** goaz, hori baita iraultza honen oinarria, mugimendua. Mugimendua gure kezka, esperientziak eta emaitzak lau haizetara zabaltzeko eta **Gipuzkoako baratzetan** partiturak bailira idatzita uzteko.

Gustokoaz gain ikasteko ere baliogarria izatea espero dugu erakusketa honetan bildutakoa.



Gaur egungo eredu agroelikatzailearen arazoak




XX mende hasieratik nekazal mapa orokorrak aldaketa nabarmena jasan du eta aldaketa honek eragina izan du arlo desberdinetan, ingurumenean, sozioekonomikoki baita osasunean eta elikagaien segurtasunean ere.

Bigarren mundu gerraren ondotik, **“iraultza berdea”** sortu zen, horrela elikagaien ekoizpen intentsiboa eta errendimendu altuena bilatu ziren, besteak beste, makineria pisutsua, hazi hibridoak, pestizidak eta ongarri artifizialak erabiliz.

Monokultiboan oinarritu zen iraultza berdea, hazi barietate gogorrenak zainduz biodibertsitatearen kalterako. Prozesu honen helburua gerrate ondoko gizarte gosetua elikatzea izan zen.

Zerealen ekoizpena hirukoiztu bazen ere, gosea pasatzen zuen jendearen kopurua oso gutxi txikitu zen. Baina **nekazaritzan eta abeltzatzan ezarritako bide industrial honek, eragin handia izan du ingurumenean baita gizartean ere.**



Osasunean eta ingurumenean eraginak



Bigarren mundu gerratearen ondotik, ongarri artifizialak sortu zituzten. Gerratean lehergailuak egiteko nitrogenoa sortzen zuen industriak, negoziarako aukera bikaina ikusi zuen nitrogeno hori luraren ongarri gisa erabiltzeko.


Horrela, belaunaldiz belaunaldi nekazaritzan erabilitako teknika naturalak (ongarri organikoak, ximaurra...) atzera utzi nahi izan ziren industriaren mesederako. Geroztik, **ongarri artifizialen neurri gabeko erabilerak**, landa luraren hondatzea ekarri du eta ondorioz lurak geroz eta pobreagoak dira.

Nekazal industrian agertutako azkeneko aurrerapen teknologikoa eta eztabaida gehien sortzen ari dena dudarik gabe, **Genetikoki eraldatutako organismoen gaia** da. Hauek, beste espezien geneak sartu zaizkien izaki bizidunak dira, iraunkorragoak, indartsuagoak...egiteko. Batzuk, zientzialariek gehien bat, hauen onurak gorai patzen dituzten bezela, beste zenbait taldek, europako estatu gehienak esaterako, genetikoki eraldatutako haziak debekatu dituzte ekar ditzaken kalteak argi ez daudelako.

Dena den, **transgeniko gehienak zeharkako moduan jaten ditugu**, oharkabea, haragi eta animalietatik datozen jakietatik, animaliak baitira sortzen diren elikagai transgenikoen hartzaile nagusiak.

Europan, genetikoki eraldatutako elikagaiek etiketan argi eta garbi azaldu behar dute, beti ere totalaren 0,9% baino gehiago denean, baina animaliaaren elikadura zein izan den agertzea beharrezkoa ez denez, bertatik sartzen dizkigute transgeniko gehienak.

Nekazaritza agroindustrialean oinarritutako eredu honetan, elikagaien 90%a 15 landare motatik dator, nahiz eta egun, munduan, 270.000tik gora landare ezberdin ditugun. XX.mendean, nekazal biodibertsitatearen 75%a galdu da gutxi gora behera.



Ekonomia eta Gizarte eraginak



Azken hamarkadetako elikagaien ekoizpen eredua, sistema intentsiboan oinarrituta dago, ekoizpen eta lehengai kostuak ahal bezain merke eskuratzen dira, ekoizpen prozesuak munduko herrialde merkeenetan egiten dira eta salmentarako prezioak inbertsore eta empresa handien onuraren arabera ezarriz.

Gainera azken urteotan, **agroerregaien ekoizpenerako bideratu dira aurretik elikagaiak landatzeko erabilitako lur asko**, gehienetan lurralde pobreetan, eta ondorioz bertako biztanleek elikadura premiak asetu gabe dituzte.

Gizakientzako gutxiago ekoizteak, **prezioen garestitzea** ekarri du, eta bertako herritarrak ezin dira behar bezala elikatu. Adibide bat emateagatik, 4x4 kotxe baten depositoa behin betetzeko behar den agroerregaia, persona batek urte betez zerealekin elikatzeko adinakoa da.



Lurra lagundu dezakegu (I)



Sistema agroindustrialaren ondorioa ez dira bakarrik gure osasunean, lurrean antzematen, mundo mailako kalteak eragiten ditu eta hau guztia elikagaiak ekoizteko sistemak sortzen dituen negutegi efektuko gasengatik da. Hauek, lehorteak, uholdeak eta bestelakoak ekartzen dituzte eta ondorioz lurra berotzen ari da guztion kalterako.

Agroindustriak, lurrari, gure planetari, modu desberdinetan sortzen dizkio kalteak, ikusi ditzagun:

DEFORESTAZIOA: Oso lur eremu handiak erabiltzen dira monolaborantza praktikan jartzeko. Baso, ohian eta antzeko lurak garbitzen dituzte, zuhaitzak eta landaredia asko erretzen dute prozesuan eta ondorioz ematen den materia organikoaren galtzeak negutegi efektuko gasen sortzea dakar.

EKOIZPENA: Alde batetik, monolaborantza handiak lantzeko traktore eta makineria asko erabili behar da eta ondorioz erregai fosilen (gasoila) kopurua ere eraberakoa da. Bestalde, ongarri eta agrotokikoak eguneroko ogi dira eta hauek sortzeko ere erregai kopuru galanta behar da.

GARRAIOA: Egungo agroindustria ereduak, lehengaiak eta elikagaiak distantzia luzeetara garraiatzea eragiten du. Baina ez bakarrik ekoizpenerako lekuaren klimak horrela eskatzen duelako, modelo honek sortzen duen prezioen konpetentziagatik baizik.

HONDAKINAK: Tristeia abada ere, elikadura sistema industrialak ekoizten duen elikagaien erdia gutxi gora behera, hondakin bilakatzen da prozesuan zehar. Baratzean bertan, tamaina ematen ez duten barazkiak ez dira biltzen, eraldaketan ere zati jakin batzuk aukeratzen dira besteak baztertuz...ondorioz, hondakin organiko kopuru handia usteltzera uzten da eta honek ere negutegi efektuko gasak sortzen ditu.



Lurra lagundu dezakegu (II)



Eredu agroekologikoan lan egiten duten nekazariak, landalurren galtzea geldiarazten dute eta era berean munduko beroketa prozesua moteldu dezakete....baina nola?

LURRAREN ZAINKETA: Laborerako lurrari ekoizpen agroindustrialak eragindako materia organikoaren galera itzuli behar zaio. Lurreko estaldurak erabiliz, laboreen errotazioa eginez, ongarri berdeak landatuz, laborantza lurra ongarrituko dira, ekosistema orekatuko da lurra bere onera bueltatuz.

AGROTOXIKORIK EZ: Hauen erabilerak lurren ahulezia eragin dute, mikroorganismo asko pobretu dira sailak eta horri aurre egiteko, berriz ere landalurren ongarritzea ezinbestekoa da. Gure arbasoen jakintzataz baliatuz elikagai ekoiztu ditzazkegu modu orekatuan, kimikoen beharrik gabe.

GARRAIOA: Ekoizpenaren fruituak tokian tokiko merkatuetara itzuli behar dira, elikagai freskoak kontsumitu, garaian garaikoak eta bertakoak. Horrela ere energia asko aurreztuko dugu.

NEKAZARITZA EREDUA: Garai batetako gure arbasoen nekazaritza eredura itzuli beharra daukagu, nekazari txikien lan egiteko modua bultzatuz.

Multinazionalak eta estatuak sustatzen dituzten labore bakarrerako lurren metatzeak bertako nekazari txikien kaltea dakarte, horietako asko beraien lurretatik botaz edo eta lehiarako prezio ezinezkoak jartzen dizkiete, agroindustriaren sistemarako lan egitera estutuaz. Hortaz, **munduko lurren birbanaketa ezinbestekoa da, nekazal erreforma osoaren bitartez eta beti ere nekazari txikien onuran so eginez.**

Baina guzti hau ez da bakarrik nekazarien ardura, guztiok, herritarrok, kontsumitzaileok inplikatu beharrean gaude, irizpide agroekologikoen baitan biziz. Gizarte mugimenduak elkartu eta saretuz, indarra egin dezakegu alternatiba jasangarrietara pausuak emanez.



Kontsumo taldeen jatorria eta historia




Mundu mailean asko hedatu den sistema da kontsumo taldeena, 60-70en hamarkadatan, Alemania, Frantzia, Japon edo Estatu Batuak bezelako herrialdetan agertzen hasi ziren, garai haietan emandako nekazaritzaren industrializazioari planto egiteko, betiko eta ohiturazko nekazaritza aldarrikatzeko mugimendu gisa sortzen joan ziren.

Penintsulara hamarkada bat beranduago iritsi ziren horrelakoak, 80en hamarkada bukaera aldera hain zuzen ere. **Lehen kontsumo taldeak Katalunia eta Andaluzia aldean agertu ziren** eta pixkanaka beste lurraldeetara zabalduz Joan ziren. Euskal Herrian aurretik zenbait talde edo saiakera izan bazen ere, XXlen menderarte ez ziren kontsumo taldeak agertzen hasi eta indartsu antzera 2010 urtetik aurrera ezarri ziren.

Talde bezainbeste formatu edo egiteko modu dituzte kontsumo taldeek, baina guztiek funtsean antzeko helburua dute, **elikadura sobirautzan eta agroekologian oinarritutako ekoizpen eta kontsumo ereduak** ezagutzera eman eta praktikatzea.



Kontsumo taldeak



Aipatutako elikagaien banaketa eta ekoizpen globalizatuaren alternatiba izateko jaio ziren kontsumo taldeak. Ustiapen txikiak lagundu eta bultzatzen dituzte agroekologia irizpide nagusitzat dituzten baratzeekin.

Bertako ekoizpenak lehenesten dituzte, herri ekonomia suspertuz eta herrialdeetako elikadura sobirautza mugituaraziz. Ekoizleen lan baldintzekin arduratzen dira eta otarkideek kontsumo konpromezu luzeak adosten dituzte ustiapen txiki hauen mesederako.

Kontsumo talde mota pila bat dago gure inguruan, talde bakoitzean adostutako beharretara egokitutakoak. Saski edo otarkideen kopuruaren arabera, hauen inplikazio mailarena arabera, jasotzen diren produktuen arabera... Batzuetan guztion artean lantzen dituzte lurak, beste batzuetan baratzea ekoizlearen eskuetan geratzen da. Otar itxia dute gehienek, hau da, alde aurretik planifikatutako barazkiak banatzen dituzte, beste batzuk eskaera bereziak egin ahal ditzazkete. Esan bezela, guztia taldeko kideek adostutako erabakien esku geratzen da.

ZERGATIK IZAN KONTSUMO TALDE AGROEKOLOGIKO BATETAKO KIDE?

- Osasuntsu, kimikorik gabeko barazkiekin elikatzeko.
- Baratza eta ingurumenaren arteko oreka mantentzen laguntzen dugulako.
- Produktuak, genetikoki eraldatutako organismorik gabekoak direlako.
- Bertako eta garaiko barazkiak jasotzen direlako.
- Ekoizle eta kontsumitzaileen artean adostutako prezio duinak dituztelako.
- Salmenta zuzena, bitartekaririk gabekoa egiten delako.
- Baserriaren biziraupenean laguntzen delako.
- Bertako ekonomia bultzatzen delako, etxalde txikien mesederako
- Elikadura sobirautzarako bidean jartzen gaituelako.



Basherri sarea



Gipuzkoako Basherri taldeak, modu ekologikoan ekoiztutako nekazal produktu jakin batzuk gertuko baserritar bati zuzenean erosteko osatutako taldeak dira, salmenta zuzena oinarritzat hartuta elkarlana adosten dutenak.

Baserritarrak astero bere produktuekin osatutako otarra prestatzen dio kontsumitzaile bakoitzari, eta hauetako bakoitzak hilean behin kuota bat ordaintzen dio baserritarrari.

Azken finean, **bertako nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa uztartzen dituen eredua da** Basherri sareko taldeek eskaintzen dutena, gizartea gero eta gehiago eskatzen ari dena, bai baserriaren biziraupenarekiko kezkatik, baita elikagaien inguruan agro-enpresa erraldoiek sorturiko menpekotasuna eta ekoizpen eredu industrial eta tentsiboaren ondorioekin arduragatik ere.


Elikagaien eta ekoizpen ereduaren inguruko **erabakitzeo ahalmena berreskuratzea da** Basherri taldeen helburuetan nagusia eta honen ondorioz, konfidantzazko, garaian-garaiko eta kalitate goreneko barazkiak prezio duinean eskuratzeko aukera izatea lortzen da.

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDEEN ZENBAIT DATU :

- Egun 65 bat kontsumo talde gaude Gipuzkoako lurraldean
- Talde bakoitzak +/- 25 saski egiten ditu astero astero
- Denetara Gipuzkoan 1300 familia baino gehiago elikatzen dituzte sareko nekazariak.
- Nekazari bakoitzak bataz beste hektarea erdi eta hektarea baten arteko lur eremua lantzen du.
- Lur tamaina horiek lantzeko, nekazari bat edo bi aritzen dira talde bakoitzeko.
- Urtaro bakoitzeko 8 bat landaketa ezberdin bermatzen dituzte nekazariak saskietan sartzeko.

NON GAUDE? Denetara 37 herri-hirietan ditugu aukeran Basherri Taldeak: Andoain, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Ataun, Azpeitia, Beasain, Bergara, Billabona, Deba, Donibane, Eibar, Elgoibar, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpia, Lezo, Mendaro, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Orereta, Pasaia San Pedro, Segura, Soraluze, Tolosa, Urretxu-Zumarraga, Usurbil, Zarautz, Zumaia. Donostia (Amara, Antigua, Añorga, Bidebieta, Egia, Herrera, Ibaeta, Intxaurrondo, Miramon)

Kontzeptu jakingarriak



Elikadura sobirautza: “Herrialde bakoitzak oinarrizko elikagaiak ekoizteko ahalmenari eusteko eta garatzeko duen eskubidea da, kultura eta ekoizpen aniztasunaren ikuspuntutik”. Elikagaien eta ekoizpen ereduaren inguruko erabakitzeko ahalmena berreskuratzea da.

EKOIZPEN EKOLOGIKOA: Artifizialki sortutako edo sintesiko produktuak erabiltzeari uko egiten diona da, besterik EZ. (antolakuntza industrialak izan dezake, landaketa bakarreko eremu handiak, gaizki zaindutako langileak izan ditzake, nazioartera zuzendutako nekazaritza “garbia” da).

EKOIZPEN AGROEKOLOGIKOA: Askoz haratago doan kontzeptua da, ez da bakarrik kimikoen gaia baztertzen, **sozialki, naturarekin eta ekonomikoki konpromezua hartutako eredia da**. Ekoizle txikiak kontuan hartzen ditu, garai bateko jakintzak mantentzen saiatzen da, landareen zikloak etxaldean bertan isten saiatzen da, komertzalizaziorako bide motzak erabiltzen ditu.

Harremanetarako:
info@basherrisarea.eus
Tlf: 655709043